

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ireki dituzte enpresen lehiakortasuna indartzeko laguntzen deialdiak. Berrikuntza prozesu eta produktuak, lehiakortasun maila handitzeko proiektuak, nazioarteratzekoak eta enpresen eraldaketarako proiektuak dira, besteak beste, laguntzak jasotzeko aukera dutenak.

Lea-Artibai eskualdeko enpresek Azaro Fundazioan jaso dezakete laguntza hauen guztien informazioa, baita enpresa bakoitzak dituen egitasmoetarako diru laguntza egokiaren azterketa ere. Honez gain, enpresaren proiektua Azaro Fundazioarekin landuz gero, diru-laguntzaren kudeaketa ere Azaro Fundazioak egingo du, enpresei eskaintzen dien zerbitzu integralaren barruan.

Diru-laguntza hauei buruzko informazioa Lehiatila atalean eskura daiteke.